

IRAGARPENA, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria, «Asociación de Pequeña Empresa y Autónomos (APEA)», hemendik aurrera «Asociación de Pequeña Empresa y Autónomos (APEYA)»ren estatutuak aldatzeko agiriak gorde direla jakinarazten duena. 18121

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARPENA, 2877/96-2 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoko administrazio espedientea bidaltzeko eta gainerako interesatuei epea jartzeko dena. 18122

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Debako Hiri Antolaketa Arauetako 30 Zonako (Itziarko) zati baten Barne Erreformatarako Plan Bereziari buruzkoa. 18123

### BILBAO HANDIA ESKUALDEKO UREN PARTZUERGOA-HORNIDURA ETA OSASUNBIDEA

IRAGARPENA, «Areatza-Bolueta tarteunea hartzen duen Nerbioi-Ibaizabal tartekagailua» izeneko proiektua eta hori egiteak hartzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeari buruzkoa. 18125

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la Modificación de Estatutos de la «Asociación de Pequeña Empresa y Autónomos (APEA)» pasando a llamarse «Asociación de Pequeña Empresa y Autónomos (APEYA)». 18121

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de remisión de expediente administrativo del Recurso Contencioso-Administrativo número 2877/96-2 y emplazamiento a terceros interesados. 18122

### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

ANUNCIO relativo al Plan Especial de Reforma Interior de parte de la Zona 30, en Itziar, de las Normas Subsidiarias de Deba. 18123

### CONSORCIO DE AGUAS ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO A LA COMARCA DE GRAN BILBAO

ANUNCIO relativo a la Información Pública del Proyecto «Interceptor Nervión-Ibaizabal, tramo Arenal-Bolueta» y exposición al público de la relación de bienes y derechos afectados por su ejecución. 18125

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

#### Zk-5555

255/1996 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena aldatzeko dena.

Urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatu zuen. Gero, Estatuarekin hartutako akordio batek Euskal Autonomi Elkartean Feoga-ren erakunde ordaintzaile izateko ahalmena aitortu dio Euskal Administrazioari. Horretarako funtzioak Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaritzari izendatu zaizkio eta ondorioz, zuzendaritza horri izugarri gehitu zaio lana, bai eta konplexutasuna, erantzukizunak eta kudeatu beharreko fondoen kopurua ere. Gainera, horrekin loturik Nekazaritza Bermerako Espainiako Fondoaren alorrean (NBEF) Estatuaren zerbitzuak eskualdatu egin dira. Horrekin batera, hitzarmen bat ere egin da, Euskal Administrazioari uzten zaiolarik merkatuak interbenitzeko zenbait jarraibide eta esportazioekiko itzulera kudeatzeko ardura, nahiz eta horiek berez duten izaeratik Administrazio Zentrala-

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

#### Nº-5555

DECRETO 255/1996, de 12 de noviembre, por el que se modifica la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

El Decreto 81/1995, de 31 de enero, establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca. Posteriormente se ha producido el acuerdo con el Estado que ha posibilitado el reconocimiento a la Administración vasca como Organismo Pagador del Feoga en la Comunidad Autónoma del País Vasco, función que se atribuye a la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural, con un incremento sustancial del volumen de trabajo, y su complejidad, las responsabilidades y cuantía económica de los fondos a gestionar por esta Dirección. Además, en relación con esto se produce la asunción del traspaso de servicios del Estado en materia del Fondo Español de Garantía Agraria (Fega), acompañada de un Convenio por el cual se encomienda a la Administración vasca la gestión de ciertas líneas de intervención de mercados y restituciones a la exportación que, por su propia natu-

ren eskumenekoak diren. Ondorioz, aipatutako zuzendaritzan dagoen lan-pilaketa gehitu baino ez da egin.

Hori guztiagatik, komenigarria ikusten da Sailaren egitura organikoa eta egitekoena aldatzea, batetik, Nekazaritza Zuzendaritzari egiteko berriak izendatzeko, eta bestetik, landa garapeneko eta nekazaritza prestakuntzako egitekoak beste bati izendatzeko. Hain zuzen ere, egiteko horiek zuzendaritza berri bati eman-go zaizkio, Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritzari, Koordinaziorako Zuzendaritza ordeztuko duelarik.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Lehendakaritzak onarturik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko azaroaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.* - 81/1995 Dekretuko 2. A) ataleko 5.2 eta 6.2. idazatiak aldatzea, honela geratuko direla:

«5.2. Nekazaritza Zuzendaritza».

«6.2. Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritza».

*Bigarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 16. atalari idazati hau gehitzen zaio:

«p) Europako Batasuneko Nekazaritzako Politika Komuneko erakunde ordaintzailearen barne-auditoretza egitea, Elkarteko Araudiaren eremuan soilik».

*Hirugarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 18. ataleko 2. idazatia aldatzea, honela geratuko delarik:

«2.- Nekazaritza Sailordetzaren menpe daude, zuzenean eta hierarkikoki, Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritza, Nekazaritza Zuzendaritza eta Natur Ingurunearen Antolamendu eta Ikerketa Zuzendaritza. Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritza, Arrantza Sailordetzaren menpe dagoen arren, Nekazaritza Sailordetzaren menpe egongo da egitekoei dagokienez, landa garapenaren eta nekazaritzari buruzko heziketaren alorretan».

*Laugarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 19. atala aldatzea, honela geratuko delarik:

«Nekazaritza Zuzendaritza

*19. atala.* - 7. atalean orokorrean finkatutakoez gain, honako egiteko hauek dagozkio Nekazaritza Zuzendaritzari:

a) Nekazaritzako ustiapenen ekoizpen egituren lehiakortasuna hobetzeko laguntza ekonomikoetarako programak eta ihardunak prestatuko ditu.

b) Landareen ekoizpen eta osasunerako eta abereen ekoizpen eta osasunerako programak eta ihardunak prestatuko ditu.

c) Nekazaritzako azpiegiturak hobetzeko programak prestatu eta koordinatuko ditu.

d) Nekazaritzako Politika Komuna (PAC) aldatzeko neurriak osatzeko programak egin eta koordinatuko ditu.

raleza, son competencia de la Administración central, todo lo cual viene a incrementar la acumulación existente en la Dirección señalada.

Como consecuencia de todo ello, se considera conveniente modificar la estructura orgánica y funcional del Departamento, incorporando por un lado las nuevas funciones a la Dirección de Agricultura, a la vez que se modifica la asignación de las funciones de desarrollo rural y formación agraria, que se atribuyen a una nueva Dirección de Desarrollo y Coordinación, que viene a sustituir a la Dirección de Coordinación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 12 de noviembre de 1996,

#### DISPONGO:

*Artículo primero.* - Se modifican los apartados 5.2. y 6.2. del artículo 2. A) del Decreto 81/1995, que quedan redactados como sigue:

«5.2. Dirección de Agricultura».

«6.2. Dirección de Desarrollo y Coordinación».

*Artículo segundo.* - En el artículo 16 del Decreto 81/1995, se adiciona el apartado siguiente:

«p) Realizar la auditoria interna del Organismo pagador de los gastos de la política agrícola común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria».

*Artículo tercero.* - Se modifica el apartado 2 del artículo 18 del Decreto 81/1995, que queda redactado como sigue:

«2.- De la Viceconsejería de Agricultura dependen directa y jerárquicamente la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria, la Dirección de Agricultura y la Dirección de Ordenación e Investigación del Medio Natural. Sin perjuicio de su dependencia de la Viceconsejería de Pesca, la Dirección de Desarrollo y Coordinación dependerá funcionalmente de la Viceconsejería de Agricultura en las materias referidas a desarrollo rural y formación agraria.

*Artículo cuarto.* - Se modifica el artículo 19 del Decreto 81/1995, que queda redactado como sigue:

«De la Dirección de Agricultura.

*Artículo 19.* - Corresponden a la Dirección de Agricultura, además de las que con carácter general se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones:

a) Elaborar programas y actuaciones en materia de ayudas económicas a la mejora de la competitividad de las estructuras productivas de las explotaciones agrarias.

b) Elaborar programas y actuaciones en materia de producción y sanidad vegetal y producción y sanidad animal.

c) Elaborar y coordinar los programas en materia de mejora de las infraestructuras agrarias.

d) Elaborar y coordinar programas referidos a las medidas de acompañamiento de la reforma de la Política Agraria Comunitaria (PAC).

e) Nekazaritzako errentetarako laguntza zuzenen alorrean, nekazaritzako ekoizpen eta prezioen politika-  
ren alorrean eta horiek osatzeko neurrien alorrean Euro-  
pako Batasunaren programak eta ihardunak antolatu  
eta koordinatuko ditu.

f) Nekazaritza produktuen merkatuen antolamendu  
komunei buruz, nekazaritza ekoizpenen eta prezioei  
buruz eta horien neurri osagarriei buruz proposamenak  
egingo dizkiko Europako Batasunari eta horien segi-  
mendua egingo du.

g) Europako Batasuneko Nekazaritzako Politika  
Komuneko gastuen Euskal Autonomi Elkarteko era-  
kunde ordaintzailea zuzentzen duen organoa izango da.

h) Nekazaritzaren alorrean, Europako Batasunaren  
fondoan konturako laguntzen ekoizpen-kuotak eta  
eskubideak kudeatuko ditu.

i) Nekazaritza eta abelazkuntza merkatuak arautzeko  
eta interbenitzeko kudeaketa egingo du.

j) Mintegiko hazien eta landareen ekoizpena eta  
merkaturatzea antolatu, kontrolatu eta sustatuko du.

k) Nekazaritzako ganbaren eta Nekazaritzako Erren-  
tamenduetako Ebazpen batzordeen arteko harremaneta-  
ko organoa izango da.

l) Transformaziorako nekazaritzako sozietateak era-  
tu, erregistroan jaso eta kontrolatzeko kudeaketa egin-  
go du.

m) Martxoaren 30eko 84/1993 Dekretuan oharte-  
mandako Nekazaritzako Ustiatgien Erregistroari  
dagozkion egitekoak beteko ditu».

*Bosgarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 22. ataleko 2.  
idazatia aldatzea, honela geratuko delarik:

«2.- Arrantza Sailordetzaren menpe daude, zuzenean  
eta hierakikoki, Arrantza Zuzendaritza eta Garapen eta  
Koordinaziorako Zuzendaritza. Garapen eta Koordina-  
ziorako Zuzendaritza Nekazaritza Zuzendaritzaren  
menpe egongo da egitekoei dagokienez, landa garape-  
naren eta nekazaritza formazioaren alorrean».

*Seigarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 24. atala alda-  
tea, honela geratuko delarik:

«Garapen eta Koordinaziorako Zuzendaritza

24. atala. - 7. atalean orokorrean finkatutakoez gain,  
honako egiteko hauek dagozkio Garapen eta Koordina-  
ziorako Zuzendaritzari:

a) Landa eta arrantza eskualdeen gainbehera geldi-  
tzeko iharduketa programak egin eta proposatuko ditu  
eta eskualde horiek Euskal Autonomi Elkarteko gai-  
nontzeko eskualdeetan dagoen ekonomia, gizarte eta  
kultura garapenaren mailaz hornituko ditu.

b) Arrantza sektorea eta landa eskualdeetako azpie-  
giturak eta zerbitzuak hobetzeko planak eta programak  
egin eta proposatuko ditu.

c) Dauden herri administrazioen politika eta jardue-  
rekiko koordinazio eta lankidetzarako proposamenak  
egingo ditu, a) idazatian adierazitako helburuak lortze-  
ko.

d) Gainbehera doazen arrantza eskualdeak eta Euro-  
pako Batasunak 5b helburupean hartutako eskualdeak

e) Ordenar y coordinar programas y actuaciones de la  
Unión Europea en materia de ayudas directas a las ren-  
tas agrarias y política de producción y precios agrarios  
y medidas compensatorias a los mismos.

f) Seguimiento y elaboración de propuestas a la  
Unión Europea en materia de Organizaciones comunes  
de mercados de productos agrarios, de producciones y  
precios agrarios y medidas compensatorias a los mis-  
mos.

g) Actuar como órgano de dirección del organismo  
pagador de los gastos de la política agrícola común de  
la Unión Europea en el País Vasco.

h) Gestión de derechos y cuotas de producción de  
ayudas a cargo de los fondos de la Unión Europea en  
materia agraria.

i) Gestión de la intervención y regulación de merca-  
dos agrícolas y ganaderos.

j) Ordenación, control y promoción de la producción  
y comercialización de semillas y plantas de vivero.

k) Órgano de relación con las Cámaras Agrarias y  
Juntas Arbitrales de Arrendamientos Rústicos.

l) Gestionar la constitución, registro y control de  
Sociedades Agrarias de Transformación.

m) Desarrollar las funciones relativas al Registro de  
Explotaciones Agrarias, previstas en el Decreto  
84/1993, de 30 de marzo».

*Artículo quinto.* - Se modifica el apartado 2 del artí-  
culo 22 del Decreto 81/1995, que queda redactado  
como sigue:

«2.- De la Viceconsejería de Pesca dependen directa  
y jerárquicamente la Dirección de Pesca y la Dirección  
de Desarrollo y Coordinación. La Dirección de Desarro-  
llo y Coordinación dependerá funcionalmente de la  
Viceconsejería de Agricultura en las materias referidas a  
desarrollo rural y formación agraria».

*Artículo sexto.* - Se modifica el artículo 24 del Decre-  
to 81/1995, que queda redactado como sigue:

«De la Dirección de Desarrollo y Coordinación.

*Artículo 24.* - Corresponden a la Dirección de Desarro-  
llo y Coordinación, además de las que con carácter gene-  
ral se establecen en el artículo 7, las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer programas de actuaciones con  
el fin de detener el declive de las zonas rurales y pes-  
queras y dotarlas de un nivel de desarrollo económico,  
social y cultural equivalente a las restantes zonas del  
País Vasco.

b) Elaborar y proponer planes y programas en mate-  
ria de mejora del sector pesquero y de las infraestructu-  
ras y servicios de las zonas rurales.

c) Elaborar propuestas de coordinación y colabora-  
ción de las políticas y actuaciones de las diferentes  
Administraciones públicas con incidencia en la conse-  
cución de los fines señalados en el apartado a).

d) Elaborar y coordinar programas operativos de pro-  
moción y mejora de las zonas pesqueras en declive y

hobetzeko eta sustatzeko programa operatiboak antolatu eta koordinatu ditu, bai eta gauzatu ere, nekazaritza eta arrantza sektoreen garapenaren arloei buruzko jarduketetarako.

e) Europako Batasunaren Leader Ekimen Komunean eta Arrantza Ekimen Komunean kokaturiko programa operatiboak egingo ditu, bai eta gauzatu ere, nekazaritza eta arrantza sektoreen garapenaren arloei buruzko jarduketetarako.

f) Nekazaritzarako eta Landa Inguruaren Garapenerako heziketa antolatu, kudeatu eta sustatuko du.

g) Mendi-nekazaritzako eskualdeak eta eskualde behartsuak sustatu eta hobetzeko programak sustatu eta koordinatu ditu, bai nekazaritza sektorean, bai arrantzakoan, Nekazaritza eta Arrantza Zuzendaritzekin elkarlanean.

h) Jaurlaritzaren Lehendakartzan eskumenak dituen organoaren bidez, nekazaritza eta arrantza gaietan, Europako Batasuneko Erakundeekin izan beharreko harremanak bideratuko ditu.

i) Saileko beste organo guztiekin lankidetzan arituko da, beste administrazio batzuekin izaten dituen harremanetan.

j) Sektoreko Análisi eta Estatistikaren alorrean kudeaketa eta koordinatze lanak egingo ditu, beste sail batzuei dagozkien eskuduntzen kaltetan gabe, uztailaren 30eko 202/1996 Dekretuaz araututako saileko estatistika organoari atxikiko zaiola.

k) Nekazaritza Turismoko Loiamenduak sortzeko den azaroaren 8ko 295/1988 Dekretutik eratorritako jarduketak burutuko ditu.

l) Aurreko idazatietan adierazitako egitekoekin loturik agintzen zaizkion guztiak.

m) Europako Batasuneko Nekazaritzako Politika Komuneko gastuetarako erakunde ordaintzailearen ordaintzen kontabilitatea egingo du, Elkarteko Araudiaren eremuan soilik».

*Zazpigarren atala.* - 81/1995 Dekretuko 20. ataleko «f» idazatia ezabatzea.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* - Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau garatzeko behar diren adina xedapen emateko.

*Bigarrena.* - Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

zonas declaradas objetivo 5b por la Unión Europea, así como su ejecución para las actuaciones relativas a materias diferentes del desarrollo agrario y pesquero.

e) Elaborar programas operativos encuadrados en la Iniciativa Comunitaria LEADER e Iniciativa Comunitaria de Pesca de la Unión Europea, así como su ejecución para las actuaciones relativas a materias diferentes del desarrollo agrario y pesquero.

f) Ordenar, gestionar y promover la formación en materia agraria y de desarrollo rural.

g) Elaborar y coordinar programas operativos de promoción y mejora de zonas de agricultura de montaña y desfavorecidas, tanto en el sector agrario como pesquero, en colaboración con las Direcciones de Agricultura y de Pesca.

h) Canalizar las relaciones con las Instituciones de la UE en materia agrícola y pesquera, a través del órgano competente de Presidencia del Gobierno.

i) Cooperar con los demás órganos del departamento en las relaciones que mantengan con otras Administraciones.

j) Llevar a cabo la gestión y coordinación en materia de Estadística y Análisis Sectorial, sin perjuicio de las competencias que correspondan a otros Departamentos, adscribiéndosele el órgano estadístico del Departamento regulado por el Decreto 202/1996, de 30 de julio.

k) Llevar a cabo actuaciones que se deriven del Decreto 295/1988, de 8 de noviembre, por el que se crea la modalidad de alojamiento turístico-agrícola.

l) Cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas en relación con las señaladas en los apartados anteriores».

m) Realizar la contabilidad de pagos del Organismo pagador de los gastos de la política agrícola común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria.

*Artículo séptimo.* - En el artículo 20 del Decreto 81/1995, se suprime el apartado: «f»

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* - Se faculta al Consejero del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.* - El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.